



## DONEKUNTZA - BIDEA <sup>(1)</sup>

### Aurē - itza



LDI onetan Bañez'tar Domeka Aba (domekaía) dot autořentzule. Onek emonda, otoitz-jarduketaz zerbait idazteko baimena neban. Joseba Deunaren lekaimetxe ontako ene aiztak onen bañi ba-eben; eta ia gogait-eragin arte jardun dauste, otoitz-jardunketea aitatur, zer-edo-zer idazteko esaka. Azkenik, euren gogora ekafi nabe. Otoitz-gayen buruz zerbait bidez esatea ba-leiteke, gai oneitan aituak eta deun-usaindunakaz safi artu emona eukia naz ta. Etxe ontako aiztak biotz berroz maite naben ezkerro, gai ofetzaz ganoraz ta adimen ernez egiñiko idazti asko izan ařen, eta nik dagidana utsez josia, idazkera baldanean esana ta alan olangoa izanik be, ontzat artuko daustela deritxat. Euron otoyak lagun, etxe onetan dogun bizieraz Goiko Jaunari atsegafi dakion zerbait esatea izan leite-

(1) Ona emen, irakurle, Terese Ama Deunak gazteleraz idatziriko «Camino de Perfección» deritxon idazti edera. Terese Deunaren idaztiak erbesteko izkuntzetan oso ezagunak izan ařen, euzkel-mintzo-apainduraz eztauz oraindiño iñok jantzi. Onek min emonda, zerbait egin naye, lenengoz idazti guren au euzkeraltzen asi gara. «Donekuntza-bide» onek, lekaimentzat egiña izanda be, etekin edo probetxu asko edonori ekari legikeazala oan gagoz. «Aita gurea» zelan otoiztu bear dan ondo baño obeto diño. Biotz onomen-zaleak betoz aringa ezta darion ituri garden ontara, ta berton daurkie biotz-gosea asetuko dautsen jan-edana.



ke. Ta gauza bidezkorik idatzi ezpadagit, idazlan onen len-ikusle Domeka Aba izango da ta, berak arteztu edo, bestela, sutara bota begi; ta nik, Jaunaren mirabe onein esana beteaz, eztoz ezer galduko; bai, ostera, Jaungoikoak sorosi ezik, makal utsa nazana argitara atera.

Asmo bakaña leño oneik idaztean burutan darabildana: txefenak buruz-buru ipinten dauskuzan ziltza edo beatz-zoztor txiki baxen sañientzat osakañi batzuk azaldu. Ziltzok txiki baxen sañiak diralako, ardura gitxi izan oi dogu. Gerora, arloari jañaiz, esango dodanik eztakit. Asmorik urtenena aitatua izan añen, zuzen-zuzenik ez tarabilt; eta, neure eritxiz, obe izan be; gai oneitzaz nik ezer idaztea oso zuzen-eza da-ta. Dagikedan guztiak Jaunaren esku-atza bekar. Bere nayera oro egingo al dot! Egitadetan sañi erakutsi ez-ta be, onexek nire betiko gurariak.

Maitasuna ta gurari onik ba-da nire bulañean. Eurokaz nire aizten gogoai, Jainko-otseintzan urats luzez dabil-tzan, onik ezer egin al ba'dagioet, ona ni gert. Maitasun-gurari oneik, dodazan urteokaz lekaimetxetan asko ikusia naz-ta, jakitunak eurak baño onura geyago le-barkie aurki, gauza txikietan beintzat. Jakitunak, arazo gañantsitsuagoak darabilez gain. Sendoak dira-ta, ezer ez tirudien gauzai eztautse jaramonik egiten. Gure antzeko andrazkoai, bañiz, edozek kalte egin leiskegu. Onezaz ostean, ludiari agur egiñik, bakartegira iges egin dabenei iruzurbide asko ezarten dautsez txefenak. Era ta izkilu bañi-bereziak gaitu oi dauz euron aurkako burukarako. Nik, ain tzatxaña naz-ta, eztoz onen ondo be burua aldezten jakin. Artu nagie aitzok zintzo-añitzat eta neugan gabendu beitez. Neugan edo beste norbaitengan oartuta ikasi bakorik eztoz esango.

Egun batzuk dirala, neure bizitz-edestia eratu nen-giela agindu eusten; an be otoi-jarduketaz zeozertxu esan neban. Bear bada, baña, a zuek ikusterik eztau

naiko  
batzuk  
yatzue  
dautso  
oro be

Z  
Le  
gin an  
gauza  
dagoz  
ain txi  
bizitek  
kitasu  
suna b

Of  
kaltee  
di galg  
nintza  
ten ne  
be, an  
ratzea  
gertu  
tzan; b  
rako.  
adizki  
izan d  
bagi n  
ta eme  
koak  
dana i  
-eta.



naiko nire autofentzuleak. Ofela, an aitaturiko gauza batzuk emen be ezariko dodaz; baita onuragarri izango yatzuezala uste dodan beste zertxo batzuk be. Eska dautsodanez, Jaunak zuzendu begist idazkortza au, ta oro bere aintzarako bedi. Olantxe.

### LENENGO ATZALBURUA

#### Zergaitik egin neban lekaimetxeau ain txiroa.

Lekaimetxe au zergaitik egiña dan eta berton atsegin andiak izango ebazala adirazteko Jaunak egiñiko gauza arigarri batzuk len aitatu dodan idaztian esanda dagoz. (1). Lekaimetxe au egiten astean, eneban berau ain txiro egiteko asmorik, ezta bertan jarauntsi barik bizitekorik be, ta bai ezeren bearik barik biziteko egokitasunakaz. Ain nenbilen zur eta uzkur, neure nasaitasuna bakarik etzan ortara igitzen ninduana-baña.

Oretan izan neban Frantzi'n-eta lutertarak egiñiko kalteen bari. Aufera ta aufera joian zorigaiztoko alderdi galgari au. Naigabe anditan jari nintzan, eta zerbait nintzalakoan-edo, negafez Jaunari azen ta azen jarduten neutson ainbesteko galbideari bideak austeko. Neu be, an galtzen ziran gogoetariko (arimetariko) bat oneratzearen, eun bizi izanda be, guzti-guztiak emoteko gertu nengoan. Baña emakumea ta gauzaeza baño enintzan; beraz ezin egin nai neukean beste Jaunaren alderako. Ofaitio be, gure Jaunak ain arerio asko ta ain adizkide gitxi dauzan-ezkero, adizkideok onak izatea izan da nire betiko leya-ta, al nebantxo au egitea erabagi neban: Josu Kisto'ren onuak albait zeatzen bete, ta emeko lekaimetxeok be bardin egien leyatu. Jaungoikoak emongo eustan ortarako laguntasuna, beragaitik dana isteko gertu dagoanik eztau laguntza barik isten-eta.

(Jaraituko da)

IGOTZ OBA

(1) Bizitzan. XXXII'garinetik XXXVI'garenerañoako atzalburuetan.